

GAKO EKONOMIKOAK

- Ziurgabetasunak jarraitu egiten du panorama geopolitikoan, hazkunde amerikarrak sendotasuna adierazten duen testuinguru makroekonomiko batean, nahiz eta erakusten duen etorkizunean nolabaiteko moderazioa izango duela, eta Europan ahultasunak jarraitu egiten du.
- EBZk inbertsiogileei irailera arteko epea eman die bere lehen jarduketara ikusteko eta FEDek interes tasak jaitsi ditu, nahiz eta hoztu egin duen interes tasen murrizketa segida luze baten lehen mugimendua izateko itxaropena.
- Itxiera mistoak burtsetan, Estatu Batuak igo egin da eta Europak ia berdin amaitu du.
- Minimo berriak Europako zor publikoaren interes tasetan.
- Dolarra indartsu dago eta libera berriz jaitsi da.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Uztaila itxuraz Estatu Batuak eta Txinaren arteko merkataritza tentsioa arinduta hasi genuen, bi potentziek elkarrizketei berriz ekitea adostu ondoren G20ren bileran. Halere, abuztuaren hasieran, egoera berriz gaiztatu da zeren Trumpek bere iritzia erabat aldatu eta G20 bileran lortutako merkataritza tregua hautsi du; izan ere, iragarri du irailaren 1etik aurrera % 10eko muga zerga ezarriko duela Txinako inportazioen 300.000 milioi dolarren gain. Presidente amerikarrak Iranekin zituen negoziatioak ere zapuztu egin dira uztailean, zeren Trumpek adierazi zuen Ormuzko itsasartean itsasontzi amerikar bat mehatxatzen zuen dron iraniar bat botu zuela. Hori guztia gertatu da Txinako ekonomiak bere hazkundea 1992tik izan duen erritmo txikienera frenatu duen testuinguru makroekonomikoan eta NDFk urte honetarako ekonomia globalerako hazkunde aurreikuspenak jaitsi dituen eta hurrengorako hamarren 1, % 3,2 eta % 3,5 hurrenez hurren, jaitsi dituen testuinguru makroekonomikoan. Itxaropenen jaitziera emergenteetan zentratu da, zeren merkataritza tentsioa dela eta presio handia dute, nahiz eta arindu egin den AEB bezalako garatuen goranzko berrikuspenekin. Herrialde horretarako, NDFk orain % 2,6ko hazkundea izango dela ikusten du, aurrekoan % 2,3koa. Lehen hiruhilekoko hazkunde datu indartsua eta bigarren hiruhilekoko itxaropenak gaituzten kontsumo pertsonala eta BPGa daude berrikuspen horren atzean, nahiz eta aurreratutako datuek adierazten duten nolabaiteko moderazioa izango dela etorkizunean. Europan, hazkundearen zalantzak berriz aktibatu dira Alemanian; izan ere, ekonomiaren moteltzea aldi baterakoa baino iraunkorra izan daitekeela adierazten duten zantzu berriak erakutsi ditu Alemaniak. Ildo horretan, Ingalaterrako Bankuak jaitsi egin ditu Erresuma Baturako hazkunde aurreikuspenak lehen ministro Boris Johnson aukeratu ondoren; izan ere, urriaren 31n EBtik irtearen aldekoa da, Europak ez badu onartzen beste akordio bat negoziatzea. Bestalde, Banku Zentralek (urteko lehenengo hilabeteetan era irekian adierazi zuten izaera prebentiboarekin jardungo zutela ziurgabetasunak jarraitzen bazuen) desengainatu egin zuten pixka bat uztaileko agerraldietan. EBZk, oraindik ere ez du ekintzarik egin, nahiz eta irailan interes tasak jaitzeko bidea prestatzen ari den eta aktiboak erosteko programak berriz aktibatzeko aukera ere kontuan hartzen duen, baita bankurako neurri aringarriak hartzeko aukera ere. Erreserba Federalak, nahiz eta jardun egin duen eta interesa tasak 25 oinarrizko puntu jaitsi dituen, desengainatu egin du adierazi baitu ez duela beharrezkotzat jotzen jaitzieren ziklo luze bat hastea. Azkenik, atal politikoan, Europan kargu berriak izendatu dira. Hala, Europako Batzordearen eta Kontseiluaren presidentek Ursula von der Leyen eta Charles Michel dira hurrenez hurren; Christibe Lagarde, berriz, Draghiren ondorengoa izango da EBZn azaroaren 1etik aurrera. Eremu nazionalen, inbestidurako debatea akordiorik gabe itxi da. Hori dela eta, irailan berriz ere negoziatioak hasiko dira eta/edo berriz ere hauteskundeak izango dira azaroaren 10ean.

ERRENTA ALDAKORRA

Ekainean igoera orokorrak izan ondoren, uztaila portaera mistoarekin amaitu da burtsetan. Amerikako eta Japoniako merkatuak % 1 baino pixka bat gehiago igo dira eta Europakoa ia berdin gelditu da. Dolarren indarrak eragin negatiboa izan du emergenteetan, % 1,5etik gorako jaitziera zutenak. Emergenteen ahultasunaren ondorioz eta banku sektoreak egoera horretan interes tasak baxu baloratu izanaren ondorioz, Ibex 35a portaera okerrenetakoa izan duen indizeetako bat izan da hilabete honetan, % 2,5 inguruko jaitziera izan baitu. Hori guztia konpainien emaitza ugari aurkeztu diren hilabetean gertatu da; gai hau, aldiz, bigarren mailakoa izan da. Kontua da, nahiz eta, oro har, hala Europan nola AEBn gaituzten egin diren itxaropenak, urte hasieran espero zenarekin aurreikuspen oso murriztuetatik abiatu gaituzten.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.971	EUR	%5,62
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.466,85	EUR	%16,08
S&P-500	AEB	2.980,38	USD	%19,90
DOW JONES	AEB	26.864,27	USD	%16,49
NASDAQ 100	AEB	7.848,78	USD	%24,88
NIKKEI-225	JAPONIA	21.521,53	JPY	%7,53
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.037,01	USD	%7,73
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.187,564	EUR	%16,93

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOAK

Europan, errenta finkoak babes aktibo gisa jarduteko tituluen eskaerak zorraren merkaturan irabaziak sortu ditu; hala, Europako bonuek eskaintzen dituzten errentagarritasunak berriz ere minimo historikoetan egon dira. Hamar urterako bonu alemaniarrek -% 0,44an itxi du, inoiz ikusi gabeko mailan, eta espainiarra berriz ere % 0,28ra jaitsi da. Nabarmendu behar da Italiako arrisku prima asko uzkurto dela, nahiz eta Gobernuak mezu kontraesankorrak ematen dituen (Bruselak, aldiz, diziplina fiskala mantentzera deitzen du). Merkatu amerikarrean, hamar urterako bonu estatubatuarren errentagarritasuna ia ez da aldatu; halere, 2 urterakoa 12 oinarrizko puntu igo da FEDen adierazpenen ondoren.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,38	-0,06
	6 HIL.	-0,36	-0,13
	12 HIL.	-0,30	-0,18
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,78	-0,17
	5 URTE	-0,72	-0,40
	10 URTE	-0,44	-0,68
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,49	-0,26
	5 URTE	-0,27	-0,60
	10 URTE	0,28	-1,13

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Europan, errenta finkoak babes aktibo gisa jarduteko tituluen eskaerak zorraren merkaturan irabaziak sortu ditu; hala, hilabetea 1,108\$/eur-ko amaitu da hilabetea. Yenaren aurka ere balioa galdu du, babes moneta gisa jardun baitu yenak. Halere, liberaren aurka balioa irabazi du; izan ere, liberari eragin egin dio Boris Johnson lehen ministro izateak. Ondorioz, % 1,8 inguru jaitsi da libera.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg